

3. FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure produktuan parte hartuko duten agenteak hauek izango dira: Alde batetik, erakunde publikoak, hots Eusko Jaurlaritzak edo udalak diru-laguntzak eskaintzen dituztelako, batez ere gizartearen ongizatearekin lotura zuzena duten proiektuetan. Gure proiektuak hondamendi naturalen ondorioz kaltetuak izan diren pertsonentzat edo etxebizitza bat erosi ezin duten pertsonentzat bideratuta dagoenez eta hauek lehentasunezko taldea direnez gobernuentzat, erakunde horien babes instituzionala eta finantzazioa jasotzeko hautagai egokia da.

Bestetik, bankuak inbertsore pribatuak edo erakunde publikoak gure bazkideak izan daitezke. Haien funtzio nagusia da proiektuak aurrera egiteko beharrezko baliabide ekonomikoak ematea: maileguak, diru-laguntzak edo inbertsioak. Gainera, finantza-eragileek bermatzen dute likidezia eta proiektuaren jasangarritasun ekonomikoa, eta batzuetan aholkularitza finantzarioa ere eskaintzen dute.

Gure produktua diseinatu eta ekoiztu ahal izateko hainbat bazkidek parte hartzen dute. Lehen bazkideak proiektuaren oinarriak dira, ekoizleak. Haiak sortzen dituzte lego formako adreilu bereziak, erraz elkartzen direnak eta pisu arinekoak, baina sendoak. Material birziklatuak edo ingurumenarekiko errespetuzkoak erabil ditzakete, natura zaintzeko. Haien lana oso garrantzitsua da, adreiluen kalitatea eta segurtasuna bermatzen dituztelako. Adreilu on batek ez du ura pasatzen uzten, beroa mantentzen du eta erraz garraiatu daiteke. Horregatik, fabrikatzaileek egiten dute lehen pausoa proiektu osoan. Gure fabrikatzailea [COASA](#) enpresa da. Egoitza dute Tarragonan. COASArek helburua gizartea hobetzea da, kalitatezko eraikinak eta azpiegiturak eginez. 35 urte baino gehiagoko esperientziarekin, COASAk konfiantza, arduratasuna eta emaitza onak eskaintzen ditu proiektu bakoitzean.



Beste aldetik, ingeniariak eta arkitektoak arduratzen dira diseinua egiteaz eta eraikuntza antolatzeaz. Lego-adreiluekin etxe eroso, seguru eta azkar eraikitzeko moduak bilatzen dituzte. Gainera, tokian tokiko baldintzak aztertzen dituzte (adibidez, klima, lurzorua edo haizearen indarra) eta horren arabera egokitzen dute diseinua. Haien lana ezinbestekoa da, familiek etxe sendo eta seguru bat izan dezaten, berriro eguraldi txarra edo lurrikara bat gertatuz gero ere.

Ingeniaritza taldea [Tekton ingeniería y construcción](#) da eta lagunduko digute gure proiektua aurrera eramaten. Enpresa honen egoitza Madrilan dago. Haien lana, azpiegitura eta egitura buruz arduratzea da, zerbitzurik hoberena eskaintzearen helburuarekin. Enpresa honek, hainbat proiektu garrantzitsuenetan parte hartu du, esaterako Unide enpresaren hainbat lantegi eraiki ditu Salamancan eta Alicante, edota Fredigoni enpresaren industria-nabea.



Arkitektura taldea [MALPESA](#) da eta diseinua zehazten lagunduko dute. Egoitza Jaenen dauka. Haien lana gure enpresarekin, gure aterpeen diseinua guztiz zehaztea da bistako adreilua eta galtzada-harri zeramikoa fabrikatuz. Gainera, Malpesak Agadir hiriko (Maroko) itsas pasealekuaren eraikuntzan parte hartu zuen, zeramikazko galtzada-harri batekin, edota Pradoko Museoa handitzen lagundu du haien produktuak eskainiz.



Azkenik, GKE-ek (Gobernuz Kanpoko Erakundeek) proiektua jendearengana eramaten dute. Haiek identifikatzen dituzte laguntza behar duten familiak, eta koordinatzen dute materialaren banaketa eta eraikuntza-prozesua. Gainera, sarritan boluntarioak eta tokiko komunitateak antolatzen dituzte, denek batera lan egin dezaten. GKE-ek, askotan, diru-laguntza edo baliabideak lortzen dituzte beste herrialde edo erakundeetatik. Haien eginkizuna giltzarri da, proiektua biztanleengana iristeko eta eguneroko antolaketa ondo egiteko. Gure GNE-a [“Ekintzaz Lagundu Fundazioa”](#) da, egoitza Madril en duela, laguntza humanitarioan espezializatua, eta hondamendi naturalek kaltetu dituzten pertsonak laguntzen ditu.



**Ayuda
en Acción**